

19

01

Etxerat

hiruhilabetekaria
urtarrila-martxoa

Euskal
Preso eta Iheslari
Politikoen
**Senide eta Lagunen
Elkartea**

Sarrera

Etxeratek argitaraturiko 2017ko azken hiru hilabetekarian, elkarteak Kepa del Hoyo Badajozko espetxean zendu zela aipatzen zuen. ETAk bere jarduera armatua behin betiko bukatutzat jo ondoren, euskal preso baten hirugarren heriotza izan zen Keparena. Urte bat geroago, 2018ko lehenbiziko hiru hilabetekarian, Etxeratek espetxean gertaturiko beste heriotz baten berri eman behar izan zuen. Xabier Rey Urmeneta salbuespen espetxe politikoen ondorioz hil zen, Kepa del Hoyoren gisa.

Erresistentzia fisikoa eta psikikoa muturreraino eramaten duen espetxe politika hau ezartzen zitzairen euskal preso politikoei egunero.

Zoritzarrez, 2019ko lehenbiziko hiruhilabetekariaren hasiera honetan, beste bi heriotz ekarri behar ditugu gogora. Urtarrilaren 5ean, Juan Mari Maiezcurrera preso politiko ohi hernaniarra zendu zen. Bere gaixotasun sendagaitzagatik 2017ko abuztuan espainiar Audientzia Nazionalak bere zigorra eten egin zuen eta geroztik Maiezcurrera bere etxean izan zen zendu arte.

21 egun geroago, urtarrilaren 26an, Oier Gomez preso politikoa hil zen Gasteizen. Gaixotasun larri eta sendaezina zuela eta, Oier Gomezek kasuan ere, apirilaren 27an askatu zuten, bere kondena eta espainiar Estatuak bere aurka ezarritako euroaginduak etetea onartu ondoren. Geroztik, Baionan bizi izan zen Oier eta tratamendu egokiagoa jaso izan zuen bertako ospitalean.

Etxerat Elkartetik gure dolumina eta besarkadarik estuena helarazi genien Juan Mari eta Oieren senide eta lagunei. Gaixotasun larri eta sendaezinak pairatzen dituzten 21 euskal preso politiko ditugu -gaur egun 20 dira, ondoren Aitzol Gogorzaren zigorra eten dutelako- eta haiek bizitzen duten egoera azpimarratu nahi dugu; preso hauek behar dituzten zaintza duinak ez dira espetxeetan bermatzen eta haien gertukoekin harremana mantentzea eta laguntza jasotzea ezinezkoa dute, urrunketak zailtzen duelako guztiz.

Jaiki Hadi elkarteak aurreko urteko balorazioa egiterakoan, zifra gordinen eta sufrimendu luze baten mapa aurkeztu zuen berriro ere. Elkartea sortu zen urte berean, 2008an, 9 preso politiko zeuden gaixo larri eta sendaezin publiko zirenak, 765eko kolektibo baten lagunaren artean. Ikaratzeko moduko zifrak ditugu oraingoak, espetxealdi luzeek, adin mailaren nagusitasunak eta espetxe politika ezberdinek erabat baldintzatzen dutenak.

2018. urtean bi lagun kaleratu izan ziren, baina ez osasun arazoengatik, zigorra osorik bete ondoren baizik: Jose Ramon López de Abetxuko eta Manu Azkarate. López de Abetxuko, gainera, kartzelan 29 urte bete ondoren eta 69

urtekin atera da. Bestalde, patologia larriak dituen eta adin nagusikoa den Gurutz Maiza zerrenda publikoari gehitu zaiola, eta baita zerrenda anonimoan zeuden gaixotasun psikiko larria duen Kepa Arronategi eta askotariko gaitz larriak dituen Joseba Erostegi.

Pakea eta konponbidearen bidean ezinbestekoa eta urgentziazkoa da gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten euskal preso politikoak askatzea. 2019 urtearen hasieran Etxerategi burututako balantze publikoan salatu genuen bezala, euskal gizartearen eskaera den gaixo larri dauden euskal presoak askatzeari ez diote kasurik egiten. Soilik Kepa Arronategi Zuerara lekualdatu dute, Gorka Fraile El Duesora eraman dute eta Jagoba Codo Logroñora lekualdatu dute. Gainera, Kepa Arronategiren kasuan, bere gaixotasunaren inguruko datuak publiko egin zituzten, intimitate eta konfidentziasuna bermatzeko duen eskubidea urratuz.

Adin nagusikoak diren presoek dagokienez, badira 70 urte baino gehiago dituzten euskal preso politikoak; 65 urte baino gehiago dituztenak badira 12; eta 60 urte gorako euskal presoak 19 dira.

Agerraldi berean esan genuenez, gatazka konponbidearen norabidean eman beharreko pauso eta ekimenei dagokienez, euskal gizarteak adierazten duen nahiatik urrun mantentzen dira frantziar eta espaniar gobernuak. Testuinguru honetan, gure esker ona adierazi genion urte hasieran Baionan eta Bilbon "Orain presoak" lelopean" kalera atera zen jendeari. Salbuezpeneko espetxe politika behingoz alde batera uzteko aldarriarekin bat egiten dugu.

Ez dago euskal preso guztiak Zaballara ez hurbiltzeko, eta gaixo dauden eta adin nagusikoak diren presoak ez askatzeko arrazoi bakar bat ere. Ezin dugu normalizazioaz hitz egin. Egindako mugimendu eskas hoiengandik ondorioz senideok okerrago gaude, zeren eta sortutako itxaropena urduritasuna eta frustrazioa bilakatu dira guretzako. Egunak aurrera egin ahala gure egoera txarragoa da.

Bakearen alde eta persona guztien giza eskubideen alde lan egiteko konpromisoa bete dugu eta beteko dugu aurrerantzean ere. Gatazka konponbiderako, elkarbizitzarako eta pakerako zuzenduta dauden ekimenetan parte hartu eta hartuko dugu. Euskal preso politikoaren egoera oroar hartuta, gobernuak egindako mugimenduak ez dira esanguratsuak izan, estatuen ekimena ez da nahikoa, gutxiegia da.

1. DISPERTSIOA

1.1 DISPERSTSIOA ETA URRUNKETA Euskal Preso Politikoen Kolektiboa

262 Euskal preso politikoak:

DISPERTSIOA

- 260, euskal preso politiko 55 espetxetan eta Zentro batean
 - 2 euskal preso politiko Euskal Herriko 2 espetxetan
 - Euskal preso politiko bat Arrasateko Aita Menni Zentroan
 - 212, euskal preso politiko espainiar estatuko 40 espetxetan eta 4 ume haien amekin dispertsatuak
 - 44 euskal preso politiko frantses estatuko 11 espetxeetan
 - Euskal preso politiko bat Portugalen
- 2 euskal preso politikoak espetxe arinduan

URRUNKETA

- Estatu Espainola: 210 euskal preso politiko
 - 140 (67 %), Euskal Herritik 1100-600 km-tara espetxeetan
 - 43 (20 %), Euskal Herritik 590-400 km-tara espetxeetan
 - 27 (13 %), Euskal Herritik 100-390 km-tara espetxeetan
- État Français: 44 euskal preso politikoak
 - 15 (35 %), Euskal Herritik 1100-750 km-tara espetxeetan
 - 3 (6 %), Euskal Herritik 400 – 590 km-tara espetxeetan
 - 26 (59 %), Euskal Herritik gertuen dauden bi espetxetan

1.2 LEKUALDAKETAK - Traslados - Transferts

		Espetxetik: De la prisión de: De la prison de:	Km.	espetxera: a la de: à celle de:	Km.
Beaumont Etxebarria, Iñaki	2019-01-17	GRANADA (Albolote)	840	SORIA	225
Comes Arranbillet, Olga	2019-01-14	MANSILLA (Leon)	360	VILLABONA	400
Ginea Sagasti, Josu	2019-01-17	ALMERIA	960	MANSILLA	360
Lopez Gomez, Jon	2019-01-02	HERRERA	600	ZUERA (Zaragoza)	270
Sola Campillo, Aurken	2019-01-18	ALGECIRAS	1100	BURGOS	210
Atristain Gorosabel, Javier	2019-02-08	MURCIA II	790	SORIA	225
Goitia Abadia, Oier	2019-02-13	MURCIA II	790	VILLABONA	400
Murga Zenarruzabeitia, Andoni	2019-02-16	CURTIS (A Coruña)	600	ZUERA	270
Yañez Ortiz de Barron, Iratxe	2019-02-18	ALMERIA	960	VILLABONA	400
Sagardoi Lana, Xabier	2019-03-08	SORIA	225	IRUÑEA	0
Agirre Ibañez, Xabier	2019-03-11	OCAÑA	480	LOGROÑO	140
Fano Aldasoro, Unai	2019-03-11	ALGECIRAS	1100	SORIA	225
Urrutia Gonzalez, Oier	2019-03-29	A LAMA (Pontevedra)	730	LOGROÑO	140
Sagardoi Xabier	2019-03-29	GRANADA (Albolote)	840	DAROCA	340

1.3 FRANTZIAR ESTATUAK ESPAINIAR ESTATUARI

Entregados/as por el Estado francés - Remis/e/s par l'État français à l'État espagnol

Bengoa Lpz. de Armentia, Asier	2019-02-06
Borrero Toribio, Asier	2019-02-27

1.4 ASKATASUNAK / Libertades / Libérations

		Espetxea Prisión Prison	Urte espetxean Años en prisión Années en prison
Albisu Iriarte, Mikel	2019-01-22	REAU-SUD-FRANCILIEN (E.F.)	15 (1)
Aginako Etxenagusia, Asier	2019-01-31	VALENCIA III	15 (5)
Ibarrola Pérez, Julen	2019-02-10	BASAURI	2 (1)
Urizar de Paz, Germán	2019-02-28	ALGECIRAS, Cádiz	28 (1)
Etxebarria Sagarzazu, Kepa	2019-03-08	ZUERA, Zaragoza	20 (1)
Aranalde Ijurko, Maite	2019-03-11	SOTO DEL REAL, Madrid	9 (4)
Zengotitabengoa, Andoni	2019-03-28	Vale de Judeus, PORTUGAL	9 (1)

- (*) (1) Zigorra beteta / Cumplimiento íntegro de la condena / Fin de la peine
 (2) Espainiar estatuaren esku utzi ondoren. Tras ser entregado por el Estado francés / Après avoir été remis par l'État espagnol
 (3) Estradizio eskaria ukatua / Rechazada la demanda de extradición / Demande d'extradition refusée
 (4) Behin-behineko askatasuna / Libertad provisional / Liberté provisoire
 (5) Zigor etena eritasun larriagatik / Suspensión de condena por enfermedad grave / Suspension de peine pour maladie grave

2. ESPETXE POLITICA

2.1 OSASUN ESKUBIDEAREN URRAKETA

Entzutegi Nazionalak Asier Aginakoren kondena etetea erabaki zuen gaixotasun larria pairatzeagatik

Asier Aginako Etxenagusia euskal preso politikoa aske geratu zen urtarrilaren 31an gaixotasun larria izatearen ondorioz. Honela erantzun zuen Entzutegi Nazionalak Asierren abokatuen eskaeraren aurrean, izan ere, hauek kondena etetea eskatzen zuten Asierren osasun egoera larria baita eta behar duen tratamendua baldintzarik duinenetan jasotzeko eskubideari erreparatuz.

Etixerat elkarteak berriaren aurrean arindura adierazi zuen baina aldi berean, larriki gaixorik aurkitzen diren presoek egoera goraiatu nahi izan zuen guztiak kaleratzea beharrezkoa dela gogorarazi nahi izan zuen, preso hauen osasun eskubidea bermatzeko.

2.2 SENIDEEKIN HARREMANA IZATEKO ESKUBIDEAREN URRAKETA

Adin txikiko bati debekatu diote Mont de Marsango espetxean Fermin Martinez presoari bisita egitea

Martxoaren hasieran, Mont de Marsango espetxean dagoen Fermin Martinez Bergara presoari bisita egitera abiatu ziren bere senideak. Beso baten hesgailu zurruna zeraman senide taldeko adin txikiko bati, bisita egitea debekatu zioten, segurtasun arazoak argudiatuta. Adin txikikoa espetxe kanpoan gelditu zen, adin nagusiko baten zaintzapean, gainotzekoek bisita egin bitartean.

Preso nafarraren senideek jasandako jokaera salatu nahi du Etxeratek eta bide batez, adin txikikoak jasandako bidegabekeria. Are gehiago, Frantziako espetxe honetara bidaiatzeko senide hauek egindako ahalegina kontuan izanik.

3. EUSKAL IHESLARI ETA DEPORTATU POLITIKOAK

3.1 IHESLARIAK

Inaxio Olaskoaga iheslari politikoa Euskal Herrira itzuli da

22 urteren ondoren, Inaxio Olaskoaga iheslari politiko donostiarra Euskal Herrira itzuli zen urtarrilaren 7an.

3.2 DEPORTATUAK

Iñaki Etxarte deportatu politikoa Euskal Herrira itzuli da

38 urte etxetik kanpo egon ondoren, Iñaki Etxarte euskal deportatu politikoa Azpeitira itzuli zen martxoaren 2an. Azken 32 urteak Kuban egon da deportatua azpeitiarra.

4. SENITARTEKOAK ETA ADISKIDEAK

4.1 ISTRIPUAK

Dispertsio politikak 2019. urteko lehenbiziko ezbeharra eragin zuen urtea hasi bezain pronto

Urtarrilaren 1ean, Arleseko espetxean, etxetik 665 kilometrotara, dagoen Garikoitz Aspiazu Rubina euskal preso politikoaren neskalaguna eta 23 hilabeteko semeak ezbeharra sufritu zuten Arlesen bertan, bisita egin ostean. Auto batek senideen autoa kolpatu zuen bihurgune batean. Beste kotxeko gidari a jendarmeei deitzera ukatu zen eta gertaera-agiria eman gabe alde egin zuen.

Bikotea eta semea ondo suertatu ziren, kalte larririk gabe eta Euskal Herrirako bidaida jarraitzea lortu zuten

Etxeratek egungo espetxe politikaren iraunkortasuna salatu zuen, euskal preso politikoen senide eta lagunak euren biziak arriskuan jartzera behartzen baititu haien senide presoak ikusi ahal izateko, senideen adina eta egoera edozein delarik.

Jesus Mari Etxeberria preso politiko oreretarraren anaia eta lagun batek urteko bigarren ezbeharrak pairatu zuten

Urtarrilaren 25ean, Jesus Mari Etxeberria Garaikoetxea preso politiko oreretarraren anaia eta lagun batek ezbeharrak sufritu zuten Euskal Herritik 1.050 kilometrotara dagoen Puerto III espetxera bidean, Sevilla inguruan.

Sevillara iristeko 50 kilometro falta zitzaizkiela, A66 autobidean, arratsaldeko zortziak aldera, aurretik istripu baten eraginez errepidean geldirik ziren bi kotxe topatu zituzten aurrez-aurre presoaren anaia eta lagunak, bihurtu bat igaro ondoren. Errepidearen erdian zegoen kotxea sahiestea lortu zuten, baina eskubian geldirik zegoen bigarren autoa kolpatu zuten. Zorionez ongi ateratu ziren biak, baina une arriskutsua bizi zuten ondorengo minutuetan; kotxea bultzaka errepide erditik ateratu behar izan zuten autobidean zegoen trafikoa handiari aurre eginez.

Jesus Mari Etxeberriaren anaia eta lagunak bidaiarekin jarraitzeko aukera izan zuten eta, hurrengo egunean, bisita egitea lortu zuten.

Jon Mirena San Pedro euskal preso politikokoaren lagunek urteko hirugarren kotxe-istripua jasan zuten

Herrera de la Mancha espetxean (bere etxetik 580km-tara) aurkitzen den Jon Mirena San Pedro Blanco preso politikokoaren bi lagunek istripua izan zuten otsailaren 2an, bisita egin ostean etxera bidean. Ezbeharrak arratsaldeko 16:30ak aldera gertatu zen Pancorvo inguruan, elurraren ondorioz aurreko bi kotxeak irristatu eta haietako bat errepide erdian gurutzatuta geratu zen; presoaren lagunek ezin izan zuten talka ekiditu. Bertan artatuak izan ziren eta kotxearen egoera txarraren ondorioan taxian bueltatu ziren etxera.

Luis Mariñelarena presoaren lagunek ezbeharra sufritu zuten

Curtiseko espetxean (Pontevedran, bere etxetik 700 kilometrotara) dagoen Luis Mariñelarena preso politiko etxarriarraren bi lagunek otsailaren 3an, asteburuko bigarren istripua pairatu zuten, urteko lehenbiziko 33 egunetan euskal preso politikoen senide eta lagunek pairatutako laugarren istripua izan zen. Ezbeharra goizeko 10:30ak aldera gertatu zen, Cantabria inguruan kazkabarra hasi zelarik. Euskal presoaren lagunen kotxeak irrist egin zuen eta beste kotxe bati kolpea jo zion; ondoren hesiari. Denak onik atera ziren eta Luis Mariñelarenaren bi lagunek bidaiara jarraitzea lortu zuten, bisita burutuz.

5. MEMORIA URRAKETA

Etixerat Elkarteak samina adierazi nahi du Karmele Solagurenaren oroigarriak jasandako eraso dela eta

Etixeratetik samina adierazi genuen, Barañainen, Nafarroan, dispertsio politikaren biktima den Karmele Solagurenaren omenezko oroigarriak berriki urtarrila bukaeran jasan zuen erasoaren harira. Euskal gizarteak aitortza, bizikidetza eta konponbidearen bidean egindako lanari oztopoak jarri eta ondoeza zein ezinegona sortzeko helburuarekin egindako erasotzat kokatu zuen elkarteak.

Bide honetan ezin da biktima guztien memoria falta eta 2004ko abenduan bere semea Alcala Mecoko espetxean bisitatzera zihoanean istripuz hil zen Karmele Solagurenena ere ez. Salbuespeneko espetxe politikak behartutako bidaiak bizitza kostatu zion barañaindarrari. Pasa den urteko azaroan, Barañaingo udalak dispertsio politikaren biktima ofizial gisa aitortu zuen bertako bizilaguna.

6. INSTITUZIOAK ETA ERAGILE POLITIKO ETA SOZIALAK

6.1 SALBUEZPENENKO ESPETXE POLITIKAREN AURKAKO ADIERAZPENAK

Dublin Hiriko Kontseiluko kideek dispertsioaren aurkako mozioa babestu dute

Dublin hiriko kontseiluko kideek, espainiar estatuak euskal presoek ezartzen dien sakabanaketarekin amaitzeko eta euren familiei zailtasunak jartzeari uzteko eskatzen duen mozio bat babestu zuten otsailaren hasieran, aldi berean, Altsasuko gazteen askatasuna eskatuz. Elkartasun zinegotzi eta Alderdi Sozialistako kide den Michael O'Brienek proposatu zuen mozio hau.

Mozioa Euskal Herriarekiko elkartasun batzordeak eginiko informazio kanpaina handiari esker, aho batez, onartua izan zen.

Mozioan 2011. urteko su-etena aipatzen da, baita ETAk eginiko desarmatze ekintzak eta erakunde bezala desegitearen iragarpen formula ere.

Dublineko Kontseiluak espainiar Estatuako politika etengabea deitoratzen du, zeinetan, euskal preso independentistak espainiar estatuko espetxe urrutienetara dispertsatuak izaten diren; era berean, politika honek, euskal presoen senide eta lagunengan zailtasun fisiko eta ekonomiko ugari sortzen dituela aipatzen du eta, gainera, distantzia handiak egietaren ondorioz, istripu hilkorak astebururo gerta daitezkeela gogorarazten du. Mozioak presoak Euskal Herriko espetxeetara mugitzeko programa bat eta presoen askapena babesten du.

Bestetik, Amnesty International giza eskubideen aldeko erakundea eta 50 eurodiputatuen jarrerari batuz, Altsasuko gazteen kasua larritzat jotzen du, 2016an zerbitzuz kanpo zeuden bi guardia zibilekin izandako liskarraren ondorioz, kartzela zigorra ezarri baitzaie. Dublineko udaletxea nazioarteko deietara batzen da, gazte hauen berehalako askatasuna eta karguen deuseztapena eskatuz.

Onartutako mozioak testu honetako baldintzak Espainiako enbaxadoreari, Kanpo Arazoetako Batzordeari eta Oireachtas-eko Merkataritza Batzordeari helaraztea bermatzen zuen.

Andoaingo Udalbatzak espetxe politika berri baten aldeko mozioa onartu du aho batez

Matilde Arribillagaren heriotzaren urteurrenaren harira, Andoaingo Udalbatzak urrunketa politikaren aurka eta espetxe politika berri baten aldeko mozioa onartu zuen otsailaren 22an aho batez. EH Bildu, EAJ, PSE-EE, Ganemos Andoain eta Irabazi Ganar Andoain alderdien bozkekin onartu zen mozioa.

6.2 KONPONBIDEAREN ALDEKO FOROAK, TOPAKETAK ETA EKIMENAK

"Etxerako giltzak" ikuskizuna datorren, 40 minutu rock eta Etxeraten eskutik

40 minutu rock ekimenak bosgarren edizioa bete du aurten. Euskal preso eta iheslari politikoei elkartasuna adierazteko eta egun espainiar eta frantziar gobernuak mantentzen duten salbuezpeneko espetxe politika salatzeke, Etxerat Elkartearekin elkarlanean, bi egun hartu ditu aurten 40 minutu rock ekimenak.

Otsailaren 23an, larunbatean, ohitura denez, kontzertu maratonia burutu zen Durangoko Landako gunean. Bezperan, ostiralean, otsailak 22, gazteentzako jai giroaz harago zijoan jaialdia abiapuntua izanik, umeentzako zein helduentzako jarduerak prestatu zituzten. "Elkartasun dantzaldia" burutuko zen Pirritx, Porrotx eta Marimototxekin, hainbat eragile eta gai desberdinak batu ziren dantzaldian: hezkuntza komunitatea, mugimendu feminista, pentsionistak, musikariak, mendizaleak, osasun arloko langileak, bertsolariak, euskaltzaleak..

Ondoren "Etxerako giltzak" ikuskizuna eskaini zuten 40 Minutu Rock-ek eta Etxerat-ek elkarlanean. Ane eta Uri dantzariak izan ziren ikuskizunaren protagonistak. Haiekin batera, Miren Amurizak, Nerea Ibarzabalek, Ines Osinagak eta Mikel Urdangarinek ere parte hartu zuten, Gotzon Barandiaranek koordinaturiko proiektu honetan.

7. ETXERAT: DEIALDIAK, ADIERAZPENAK ETA AGERRALDIAK

Etixeraten ekarpena bizikidetzari

Etixeraten ohiko lan lerroa euskal preso eta iheslari politikoen senitartekoei laguntza eta aholkularitza ematea da, baina urte batzuk badira bere ohiko lanari beste lan lerro bat eranstea erabaki zuela. Laguntza eta aholkularitza lanaren eboluzio iraunkor baten ildotik esku-hartze hori garatu eta finkatu egin du, bizikidetzaren sendotzen eta gatazka politikoa ebazten laguntzeko helburu eta konpromisoarekin.

Gogoeta egin eta konpromisoak hartzeko prozesu horretan Gernikako Akordioari atxikimendua adieraztea erabaki genuen 2011. urtean. Bi urte geroago argitaratu genuen "Sufrikarioaren aitortzea" izeneko agiria; handik laster, beti ere norabide berean, Eusko Jaurlaritzaren "Bake eta Bizikidetzaren Planari" gure ekarpena egin genion. Honek guztiak Foro Sozialarekin elkartzeraren eraman gintuen, eta gaur egun Foro horretan aktiboki esku-hartzen jarraitzen dugu.

Foro Sozialean parte hartzearen ondorioz, Bartzelonako jardunaldietan izan ginen. Jardunaldi horien izenburua "Construint la pau. Reptes i oportunitats per al País Basc, después de la fi d'ETA" zen eta hiru erakunde antolatu zuten: Bartzelonako Udalak, FundiPau-k (Bakearen aldeko Fundazioa) eta Foro Sozialak berak. Jardunaldi horietan hainbat joera eta izaeratako biktimak elkartu ziren.

Geroago, urrian ospatutako Buesa Fundazioaren jardunaldietan esku-hartu genuen; konbentziturik geunden, ezberdintasunak izan arren, elkarri entzun behar geniola eta zubiak eraiki behar genituela, aurrera egiten saiatzeko, batzen gaituen horretan oinarrituta; hori da bizikidetzari egin diezaiokegun ekarpen nagusia, iraganeko bidegabekeriak errepikatzea ezinezko egingo duen etorkizun bat eraikitzeko.

Gizarte osoaren ardura eta gure ardura da prozesu politikoa. Horregatik, garrantzitsua eta ezinbestekoa jotzen dugu Etixerat gatazkaren ebazpen foroetan egon dadin; beraz, foro horietan guztietan aktiboki esku-hartzen jarraituko dugu. Sufrikarioaren aitortzari, bizikidetzari eta bake prozesuari ekarpenak egitea da gure konpromisoa. Gure lehentasunezko bi helburuak inoiz begi-bistatik galdu gabe: bizirik eta etxean nahi ditugu. Ez dadila berriz horrelakorik gerta; inoiz ez!

Prozesu honetatik guztitik eratorri da Miramar Jauregian gaur egiten dugun irakurketa.

Etixeraten ekarpena bizikidetzari (adierazpena)

Euskal iheslari eta presoan senitartekook gure lurraldeko bizikidetzaren demokratikoari ekarpen bat egiteko egiazko borondatea publikoki adierazi nahi dugu. Agertoki berri honetan premia bat partekatzen dugu: gatazka politikotik eratorritako bortxaren ondorioak jasan dituzten eta jasaten dituzten pertsona guztiei eta pertsona bakoitzari entzun dakiola, gatazka hori konpontzeko ekarpen gisa eta berriro horrelakorik gerta ez dadin.

Badakigu ETaren biktime asko aurrerapauso bat ematen ari dela, beste espetxe politika bat publikoki aldarrikatuz eta egungoa alboratu utziz; izan ere, egungo espetxe-politikaren ondorioen artean dago euskal preso politikoen senitartekoak zigortzea. Egiaz eskertu nahi diegu sufritzen dugunokiko agertzen duten enpatia eta hori eskuzabaltasunez egitea, trukean ezer espero izan gabe. Geuk ere elkar onartzearen aldeko ekarpena egin nahi dugu. Benetakoa da horretara bultzatzen gaituen bulkada, bakearen eta bizikidetzaren aldeko konpromisoak bultzatuta adierazten duguna.

Bortxa mota ororen biktime izan diren guztiei gertatu zaien moduan, euskal preso politikoen senitartekook urte askotan zehar sentitu dugu gizartearen zati baten eta haren ordezkari politikoen indiferentzia. Badakigu nola alboratzen diren bizikidetzaren politika publikoak eta salbuespeneko espetxe politikaren biktime potentzialak izaten jarraitzen dugu. Geure burua babestera eta besteen minaren aurrean isiltasuna gordetzera eraman gaitu horrek. Besteengana hurbiltzeko eta haiei enpatia adierazteko gai ez izatera eraman gaitu.

Zinez eta benetan barkamena eskatzen dugu, horretaz konturatu gabe, gure urruntasunaren bidez, areagotu ahal izan dugulako senitarteko bat bortxaren eraginez galdu duten ETaren biktimek jasan behar duten mina.

Bortxaren era guztietako adierazpenen biktime ororekiko aitortpena, begirunea eta enpatia agertzen ditu Etxeratek. Biktime guztiekikoak, edozein dela ere bortxaren jatorria: ETaren biktimeak; Komando Autonomoenak; Estatuaren terrorismoarenak; Espainiako Estatuaren Segurtasun Indar eta Gorputzen jarduerarenak; torturen biktimeak. Horiei guztiei eskua luzatzen diegu gaur, bereziki, egitez edo ez-egitez, nahi gabe bada ere, berorien mina areagotzen esku-hartu badugu.

Ezin ditugu ahantzi, eta ez ditugu ahantzi nahi ere, sakabanatzearen ondorioz trafiko-istripuz senitarteko bat galdu duten 16 familiak; ez eta, espetxe politikaren erruz hurbileko pertsona maitatu bat galdu duten 31 familiak ere; galera horiek samin sakon bat eragin digute eta ekidin ahal izan zitezkeen zuzenbideari atxikitako espetxe politika bat aplikatu izan balitz. Sufrikarioekiko distantziakidetasunik ezarri nahi izan gabe, jakinarazi nahi dugu sufrikarioa geure barne-errietatik ezagutzen dugula eta horrek eramaten gaituela zuena aitortzera.

Lurralde honetako biktime gehienekin gertatzen denaren antzera, gu ere ez gaitu mugitzen mendeku sentipenak edo sufritu dugun guztiaren ordainetan

besteari sufriarazi beharrak. Gure aniztasunetik adierazten dugu mugitzen gaituena honako hau dela: honetatik guztitik ezer ez dadila errepika eta etorkizuneko belaunaldiek ez ditzatela berriro sufri gatazka politikoaren ondorioak.

Horregatik, gure erronka hau da: jarrai dezagula elkarri entzuten, Etxeratek azken urteotan landu duenaren ildotik. Zubiak eraiki beharra daukagu eta kontakizun poliedriko batera hurbilduko gaituen bidean askotariko kontakizunak azaleratu beharra; horrek elkarrengana hurbilduko gaitu, zauriak sendatu eta itxiko ditu, eta bizikidetzaren oinarriak ezarriko ditu. Benetako bakerantz eta bake iraunkorrerantz doan bidea sostengatzen eta babesten duen gizarte bati guztion artean egin diezaiokegun ekarpenik onena da.

Ni Zu Bi eta Sarek deituriko gaixo presoen askatasunaren aldeko ekimenarekin bat egin genuen

Martxoaren 16an Ni Zu Bi herri ekimenak eta Sarek Bilboko zubiak bete zituen "Preso larriki gaixoak etxera!" lelopean. Txus Martin, Gorka Fraile, Joseba Borde, Ibon Iparragirre eta Kepa Arronategi Bizkaiko gaixo diren presoek askatasunaren aldeko ekimena babestu zuen Etxerat-ek.

Etxeratek gogorazi nahi du gaixo dauden 21 presoek egoera oso larria dela, eta egunez egun okerrera egiten duela. Eskubide urraketa etengabekoa da oraindik ere, baina, larriki gaixo dauden presoekin egiten ari direna krudelagoa da.

8. KINKEA

Aurtengo Kinkea lehenbiziko promozioari dagokion zozketaren lehenengo saria 14.043 zenbakiarentzat da

Aurtengo Kinkea lehenbiziko promozioari dagokion zozketa burutu genuen martxoaren 21ean, Andoainen. 20.000 € ko sari nagusia 14.043 zenbakiarentzat izan zen. Dora Salazar artistak ekoiztutako "Echar ramas" arte lanarekin batera, Santurtzin saldu zen zenbaki sariduna.